ERRENTERIAKO UDAL ALDIZKARIA | 32. zenbakia | 2024ko abendua

# errenteria

## HERRI BIZIA

## HERRIAREN ENERGIA

## Ekiherri, energia de Errenteria para Errenteria




Ekiherri 3. ORR. >>

San Tomas Eguna 6. ORR. >>

Herri Bizia 8. ORR. >>

Desio ez den bakardadea 12. ORR. >>

Errenteria bizia 15. ORR. >>

# Udal jakinarazpenak, azkar eta erraz

Udal jakinarazpeanak elektronikoki jaso ditzakezu modu erosoan. Horretarako e-posta helbide bat eta identifikazio digitalerako bide ofizial bat* besterik ez duzu behar.

# Notificaciones municipales, de forma rápida y sencilla

Puedes recibir cómodamente las notificaciones municipales de forma electrónica. Para ello solo necesitas una dirección de email y un modo oficial de identificación digital*.




***Oraindik ez baduzu, ZU! arreta zerbitzuan BakQ eskuratu ahal izango duzu**

*Si aún no dispones de él, podrás obtener BakQ en el servicio de atención ZU!

ERRENTERIA
UDALA



# Herriko energia, Ekiherri

***Errenterian sortutako energia, bertakoentzat. Ekiherrik Errenteriako Energia Komunitateak energia burujabetza du oinarrian, enpresa handien merkatu logikatik atera, eta ingurumenaren zaintzan nahiz klima larrialdiaren aurrean alternatiba eskaintzeko. Irabazi asmorik gabeko kooperatiba da.***

Gaur egungo energia eredua eraldatu nahi duen irabazi asmorik gabeko kooperatiba da Ekiherri Errenteriako Energia Komunitatea; Errenterian sortua, eta errenteriarrentzat. Berriztagarrien proiektuak garatu nahi dituzte, herritar orori zabalik diren prozesuen bitartez.

Energia kontsumoa murrizteko hautua egin dute, beraz, energia fakturak merkatzekoa ere, betiere iturri berriztagarriak erreferente izanik, eta erregai fosilekiko dagoen menpekotasuna murriztuta. «Energia burujabetzaren alde egin nahi dugu», esan zuten 2023ko martxoaren 27an Niessenen egindako herri aurkezpen ofizialean: «Ekiherri egungo energia sistema aldatzeko interesa dugun herritarrek sortua da, trantsizio justua bermatuta». Bide horretan jada lehen urrats ukigarri bezain esanguratsua egin dute: Egiluze Ikastetxearen teilatuan instalazio fotovoltaikoa egin dute, eta azken baimenen zain, laster izango da erabilgarri Ekiherriren bazkideei energia emateko. Errenteriako Udalaren Iraunkortasunerako II. Ekintza Planaren barruan zegoen herrian energia komunitatea sortzearena, beraz, Ekiherriren sorrerako eta garapenerako prozesua babestu du. Goiener energia kooperatibaren aholkularitza izan dute bide osoan.

Iazko martxoko aurkezpenaren aurretik urtebete pasatxoko egituratze prozesua egin zuten gerora Ekiherri izango zenaren bultzatzaileek. Egun, 138 bazkide ditu






# La instalación fotovoltaica de Egiluze podrá producir energía para 170 familias

jada. Eragilearen barruan hainbat lantalde dituzte, Joxe Mitxelena Ekiherriren presidenteak azaldu duenez. «Helburu sozialak, ekonomikoak, energetikoak eta ingurumen arlokoak dauzkagu. Komunitatearen bidez, herri mailan, sarea sortu nahi dugu ahal dugun neurrian helburu horiek betetzeko. Hitz potoloak dira horiek, kontziente gara», azaldu du Mitxelenak.

Kooperatiba izanik, bazkideak dira Ekiherriren oinarria. Tantaka-tantaka ari dira herritarrak proiektura batzen, eta eragilea gidatzen dutenek adierazi dute nahi duen orok bat egin dezakeela energia burujabetzaren aldeko proiektura. Bi eratako bazkideak dituzte: laguntzaileak, energia kontsumitzaile ez izan eta egitasmoa besterik gabe babestu nahi dutenak; eta bazkide kontsumitzaileak, 100 euroko hasierako ekarpen bakarra egin eta behin energia ekoizten hasten direnean hori jasoko dutenak. «Bazkide kontsumitzaile horiek laster jaso ahal izango dute Egiluzen ezarritako eguzki plaketatik sortzen den energia. Lanketa oso handia egin dugu instalazio hori egiteko, baina egina dago. Azken baimenen zain gaude jada ekoizten hasteko», nabarmendu du Mitxelenak. 170 etxe energiaz hornitzeko adinako gaitasuna du Egiluzeko instalazioak. Egiluzeko komunitateari esker bereziak helarazi dizkiete Ekiherriko kideek, «azaldu duten jarreragatik eta elkarlanean aritzeko izan duten prestutasunagatik».

Bazkide gehienak kontsumitzaileak direla azaldu du Luix Irazusta Artezkaritza Batzordeko kideak, «bazkideak eragileak, taldeak, edo norbanakoak izan daitezke», zehaztu du. Behin bazkidetza eginda ('ekiherri.eus' webgunearen bitartez eman daiteke izena), kooperatibako kideek harremana egingo dute interesdunekin argindarra nola iritsiko zaien azaltzeko, fakturan nola aurrez dezaketen jakinarazteko, euren kontsumoaren gaineko azterketa egiteko, eta bestelako xehetasunak emateko.

Ekiherriko kideak lanean ari dira zenbait ideia gogoan dituztela: *Bertan sortutako energia, bertan kontsumitzeko. Karbono aztarnarik gabekoa izatea, jasangarria, komunitate ikuspegiarekin eta helburu sozialarekin.* Baina enpresa energetiko handien egiteko eratik urrun kokatzen da kooperatibaren misioa. Horren adibide bat eman du Irazustak: «Sortuko dugun energiaren % 5 pobrezia energetiko egoeran dauden familia eta etxebizitzetara bideratuko dugu. Ezin ditugu enpresa handiak kritikatu, guri dagokigun neurrian eredu kontrajarriak proposatu gabe. Ekiherrin erabakiak bazkideek hartzen dituzte. Goazen egoera hau baliatzera, egiten ari garen urrats txiki hauek aprobetxatzera, iraultza energetikoari ekiteko».

Hasiera batez instalazio fotovoltaikoa sortu dute herrian, lehena haien bidean. Baina Mitxelenak nabarmendu du Ekiherriren funtzioa ez dela izango energia sortzea soilik: mugikortasun jasangarriko egitasmoak ere gauzatu nahi dituzte, eta tokiko ekonomian eragile izan nahi dute, betiere saretzearen eta elkarlanaren bidetik.

## Bazkideak

Ekiherriko kide bilakatu berri da Julen Etxegarai. Bazkide egin da. «Beti amorruz bizi izan dut energia alorreko enpresa handiekiko dependentzia. Iruzurtiak dira. Alternatibak bilatze horretan, ez bakarrik energiaren alorrean, jakin nuen energiaren arloan herrian zerbait ari zirela antolatzen bizilagun baten bitartez. Ekiherrikoei informazio gehiago eskatu, eta bat egin nuen». Etxegarairen ustez kooperatibak duen helburu soziala nabarmentzekoa da, «oso ondo iruditzen zait sortutako % 5a pobrezia energetikoan diren etxeetara bideratzea».

Azaldu du, behin bazkide eginda, norberaren kontsumo joerak aztertzen dituztela kooperatibako adituek, eta horren araberako kontratuak egiteko aukera dagoela. «Ekiherriren helburuekin bat egiten dut, beharbada gai ideologikoagoa izan daiteke hori. Baina baldintza ekonomikoak ere oso onuragarriak dira», azaldu du.

Komunitatean, elkarlanean energia krisiari eta ingurumen larrialdiari aurre egin nahi diote, bertatik bertara sortutako energiaren bitartez. Etxegaraik gaineratu duenez, «Agian Egiluzeko instalazioa abian denean, bazkide gehiago izango gara. Ez da erraza etxe batera joan, eta besterik gabe ‘Ekiherrikoak gara’ esanda egitasmoarekin bat egitea herritarrek. Instalazioa martxan denean, eta ugaritzen direnean, gehiago ezagutuko gaituzte eta errazagoa izango da handitzea. Ea denen artean lortzen dugun. Hori da asmoa».

Kooperatibako bazkide egiteko aukera irekita dagoela ere adierazi dute, https://ekiherri.eus/ en sartuaz edo bazkidetza@ekiherri.com helbidera idatzita. Dagoeneko Kooperatiba bigarren instalazio baterako teilatu bila ari da eta teilatuak erabilgarri izan ditzaketen enpresei Ekiherrirekin harremanetan jarri eta energia burujabetzaren bidean aurrerapauso bat emateko deia egin diete.

*Ekiherri es una cooperativa sin ánimo de lucro. Quieren incidir también el el ámbito social*

Ekiherri es la comunidad energética de Errenteria. Tras el proceso de creación, se presentó en sociedad el 27 de marzo del 2023. Es una cooperativa sin ánimo de lucro formada en la actualidad por 138 socias y socios errenteriarras. Sus objetivos son hacer de Errenteria un referente en el desarrollo de las energías renovables y así ir reduciendo la dependencia sobre los recursos fósiles, produciendo energía en el pueblo y para todas las personas que quieran asociarse, reduciendo el consumo, y por lo tanto, aligerando la factura energética. Abogan por promover una mayor cohesión social y una transición energética justa, para así también repercutir en la comunidad. Han establecido que el 5% de la energía que produzcan se encamine para hogares en estado de pobreza energética.

Ya han colocado la primera instalación fotovoltaica en el techo de Egiluze Ikastetxea. A falta de los últimos permisos, la misma empezará a producir energía limpia, renovable, más barata y con visión social en breve.




# San Tom








# nas 2024






*infórmate del día a día en*
***herriko egunerokotasunaren berri izateko***

# HERRI BIZIA
herribizia.errenteria.eus



## Giza eskubideak, pantaila handian

*El Festival de Cine Documental y Derechos Humanos de Errenteria, éxito de público y de contenido.*



## Otra alternativa para aparcar

*Tren geltokiaren ondoan 60 plazako aparkalekua izango du herriak 2025ean; ingurua biziberrituko da.*







## Balioak, Kirol Galan

*Entre otros, deportividad, compromiso, respeto, inclusión, igualdad y el trabajo en equipo en el centro de la Gala del Deporte.*



## Eguberrietan ere, bertakoa

*Las fiestas de fin de año, otra oportunidad para apreciar el comercio local.*






## La Feria de Artesanía, en digital

*Ereintzaren Artisautza Azokaren 50 urteak biltzen dituen webgunea aurkeztu dute: ‘eskulangintza.ereintza.com’.*

## Inauteriak soinu bandarekin

*‘Grupos musicales’, tema del Carnaval 2025.*



## Para que nunca más se repita

*Azaroaren 25aren harira, udalerriko indarkeria matxisten memoria historikoa berreskuratzeko bidearen hasierako urratsak egin dira.*









## Hibaika, herriarena

*Hibaika Eguna ha reafirmado que el club tiene el respaldo y el cariño de la ciudadanía.*

## Más plazas en Beraun

*Beraun kalea berrantolatu, eta 1.500 metro koadro gehiago egokitu dira herritarren aisiarako.*



# //udal taldeen mezuak//

## DERECHO A DECIDIR

[PP]

España, como Estado democrático, nos otorga más derechos que otros países. Sin embargo, algunos partidos, sin propuestas reales, inventan debates absurdos para polarizar y adoctrinar a la ciudadanía, buscando mantenerse como referentes políticos. El “derecho a decidir” es una de las frases más manipuladas por los partidos independentistas para confundir. Decidir qué ropa ponerse o qué coche comprar es cotidiano, pero no se puede decidir ser de otro país ignorando leyes y realidades. Nacer en España significa ser español, con derechos y obligaciones como cualquier ciudadano de la Unión Europea. Además, pertenecer a Europa nos otorga más privilegios y voz en el mundo que los países fuera de ella. Querer decidir unilateralmente rompe la unión que nos hace fuertes, tanto en lo político como en lo social. El verdadero “derecho a decidir” empieza en casa, respetando las normas. Dejemos de instrumentalizar a la ciudadanía y trabajemos para construir una sociedad más unida y sólida

## PARTEKATUTAKO ENERGIA

[Elkarrekin Errenteria]

Euskal gizartea trantsizio energetiko eta klimatikoaren inguruan kontzeantziatu eta mobilizatzeko helburua duen 2024ko Asteklimaren saria jaso du Udalak. Ingurumen departamentuak programazio zabala eskaini du denok ingurumena zaintzeko eta jarrera jasangarritasunak aurrera eraman ditzakegula azpimarratuz. Bertan, Ekiherri Tokiko Energia Komunitatearen buruzko hitzaldi bat antolatu zuen.

Errenteriko Udalak, laguntza ekonomikoa eta aholkularitza lanak ere eskeini izan dizkio Ekiherriri bere lehengo proiektua garatzeko, baita bere sorrerako prozesuan, Udalaren agintaldiko plana jarraituz.

Burujabetza energetikoaren aldeko apustua eginez, Ekiherrik eta berau osatzen duten herritarrek energiaren alorrean, garapen ekonomikoan, bizi kalitatearen hobekuntzan eta kohesio sozial zabala lortzean erabakiak hartzearen alde egiten dute.

Elkarrekin Podemosetik trantsizio energetiko justu eta partekatuarekin konprometitutako herritarrak bidelagun ditugu. Bidean gaude!

## ERRENTERIARREN ALDE LANEAN

[EAJ-PNV]

EAJren helburua errenteriarren alde lan egitea da, horregatik aurkeztu genituen aurrekontuei zuzenketak. Gobernu taldearekin izandako negoziazio prozesuaren ondorio, 2025eko aurrekontuetan hainbat proiektu txertatzea lortu dugu. Lehenik eta behin, Pontika-Igantziko igogailua errealitate bihurtzeko konpromisoa berrestu dugu, Igantzi baita igogailurik ez duen auzo bakarra. Bestetik, EIT eta birgaitze lanak egiteko diru-laguntza herri osora zabaltzera. Bizitza osasungarriaren aldeko apustua ere egin dugu, eta horretarako Fanderiako padel pistak estaltzea adostu dugu. Gainera, lehen sektoreko ekoizleen produktuak merkaturatzeko sistema eraginkorra sustatzea lortu dugu. Herri segurua nahi dugu, horregatik emakumeentzat herri segurua izateko azterketa egingo da. Bukatzeko, etxebizitza lehen mailako erronka dugu eta gure herriko etxebizitza hutsen azterlana egingo da, politiko publiko eraginkorra gara daitezen. Errenteriarrak erdigunean jarri nahi izan ditugu, gure lehentasuna zaretelako.

## GABON ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

[PSE-EE]

Desde el Grupo Municipal Socialista, queremos desear a todos los vecinos y vecinas de Errenteria unas felices fiestas. Asimismo, queremos hacer una especial mención a todos los agentes y entidades del municipio que brindan apoyo y esperanza a quienes más lo necesitan. Vuestra dedicación y compromiso son especialmente importantes en esta época.

Los finales de año son momentos de disfrute, pero también de reflexión sobre lo avanzado y sobre los desafíos que aún enfrentamos como sociedad. Desde el PSE-EE estamos comprometidos firmemente con el desarrollo de nuestro municipio y con los grandes retos que tenemos y para eso contamos con todos vosotros y vosotras.

Nuestro compromiso sigue firme en seguir trabajando conjuntamente por un futuro mejor para Errenteria.

¡Felices fiestas y un próspero año nuevo!

## BAKARDADEAREN ORDEZ BABESA ETA KOMUNITATEA.

[EH Bildu]

Datozen egunetan, inguruko lagun, senitarteko eta bidaideekin egoteko momentu ugari izango ditugu. 2024an bizitakoak gogoratu eta 2025erako erronka zein asmo berriak finkatzeko aukera paregabea izango dugu. Ingurukoek gure bizitzetan duten garrantziaz jabetuko gara berriz ere. Eta inguratzen gaituen komunitateak eskaintzen digun babesa eta berotasuna sentituko ditugu.

Egun hauek beraz, aproposak izan daitezke, gure herrian dugun erronka garrantzitsuenetako bati erreparatzeko: hautatu gabeko bakardadea. Izan ere, herrian 1.000 pertsona inguru hautatu gabeko bakardadean bizi dela azaleratu baitu udalak egin berri duen azterketak. Horrek eraman gaitu erronka horri erantzuteko estrategia publiko-komunitario integral bat lantzera, zeinaren bidez udalak eta herriko eragileek elkarlanean, nahigabeko bakardadean bizi den horri, babesa eta komunitate baten parte sentitzeko aukera eman nahi dioten.

Sigamos tejiendo comunidad y dándonos apoyo para hacer hacer frente a la soledad no deseada.





# Comunidad contra la soledad

*El Ayuntamiento de Errenteria tiene activada la estrategia para que las personas afectadas por la soledad no deseada sean escuchadas y, mediante la actuación público-comunitaria, tejan redes de confianza y actividad.*

La soledad no deseada puede llegar a la ciudadanía en cualquier momento de su vida, si bien afecta en mayor medida a las personas mayores. Se habla de soledad no deseada cuando esta no se escoge y perdura en el tiempo, cuando se tiene la percepción de que las relaciones interpersonales que se mantienen son insuficientes, o no son de la calidad e intensidad deseadas. Esta situación puede afectar al bienestar y a la salud de la persona afectada. No es un problema individual, es un problema de toda la sociedad. Siempre de acuerdo con las personas afectadas, el Ayuntamiento de Errenteria quiere incidir en que esa situación no se agrave. En el departamento de Servicios Sociales del ayuntamiento están trabajando en este reto, bajo el mandato del Consejo Asesor de Convivencia y Acción Social.

El departamento explica que hay que retrotaerse a la pandemia del COVID-19 para entender la estrategia que se quiere aplicar ahora. «Una de las iniciativas más efectivas que se realizaron durante la pandemia fue la de activar la red público-comutaria de ayuda a personas que viven solas. Se unieron 400 errenteriarras, y el ayuntamiento puso los medios para que pudieran hablar con las personas mayores de 65 años que vivían solas, o las mayores de 70 que podrían vivir acompañadas para saber cómo estaban viviendo la pandemia, y facilitarles diferentes servicios». En Errenteria son más de 10.000 las personas que tienen

65 o más años, es decir, el 25% de la población.

En aquellas charlas telefónicas, se preguntaba a esas personas cómo llevaban el tema de la soledad, y si les hacía falta algún tipo de ayuda. «De todas las llamadas que se hicieron, se obtuvieron 100 respuestas positivas. Nos dijeron que necesitaban ayuda», comentan desde Servicios Sociales. Para tratar esos casos, más adelante se colaboró con la Fundación Matía profundizando en el tema y haciendo un censo más exacto de la situación de la villa, mediante encuestas hechas y filtradas por diferentes profesionales. «Esas encuestas nos han dicho que en Errenteria 1.000 personas se sienten solas. Especialmente fueron altos los datos obtenidos en el Centro, Galtzaraborda, Beraun e Iztieta». En 2022 se inició a hacer intervenciones sociales con las 100 repuestas afirmativas de la era COVID-19, con recursos municipales y en colaboración con la cooperativa Zabaltzen.

Estas intervenciones tienen dos características: la intensidad, y que son integrales. «En el aspecto intensivo, una educadora se puso en contacto directamente con las personas afectadas para saber cuál era su situación actual. En los casos que se pidió ayuda, quisimos saber cuáles son sus costumbres, qué hacen, como viven... Así se crea un vínculo entre la persona y la educadora: primero, por teléfono; luego, presencialmente». El abordaje integral es debido a que las personas en soledad también suelen tener necesidades socioeconómicas: de ayudas públicas, atención sanitaria, respaldo domiciliario y demás. «Este año hemos llegado a 26 personas con esas intervenciones».

Para detectar con quién trabajar, el ayuntamiento a tenido la ayuda tanto de los ambulatorios de Iztieta y Beraun, de la asociación Duintasuna y, por supuesto, de los diversos centros de personas jubiladas del municipio. Sin embargo, ahora toca que las personas afectadas se abran más, que socialicen en su entorno, en su barrio, en su calle, en su bloque... «Un ayuntamiento tiene sus límites presupuestarios, de personal... Lo público llega hasta donde llega. Ahí entra la importancia de la comunidad: la simbiosis entre lo público y lo comunitario es esencial. Para eso tenemos que tejer una red comunitaria con cada persona afectada, que va más allá de la ayuda institucional».

*Bakarrik sentitzen diren pertsonak laguntzeko, ezinbestekoa da bizi diren ingurunea ezagutu eta sareak aktibatzea*

Desio ez den bakardade egoeran 1.000 bat errenteriar daude. Udalak haiei begirako estrategia abian du. Lanean anbizioz ari bada ere, den-denetara iritsi ahal izateko eta kasurik zaurgarrienetan eragiteko funtsezkoa da udala eta komunitatearen arteko elkarlana. Eta horretan ari dira.

Datuak eskuan, bakardadea sentitzen duten herritarren zenbatekoa bereziki da nabarmena Erdialdean, Iztietan, Beraunen eta Galtzarabordan. Azken bi auzo horietan hasi dira eragiten Zabaltzen kooperatibako kideak, betiere Errenteriako Udalaren Elkarbizitzarako eta Gizarte Ekintza Aholku Kontseiluaren aterkipean.

Bakarrik sentitzen direnen ingurunean eragitea da asmoa, izan ere, erakundeak iristen ez diren eremu horiek behar-beharrezkoak baitituzte herritar horiek; sareak josi behar dituzte etxekide, auzokide eta herriko norbanako eta eragileekin. Horrek, baina, lanketa sakona eskatzen du.



## En los barrios

Como se apuntaba anteriormente, la soledad no deseada es un problema social. «Por lo tanto, todas las personas tenemos algo que hacer en este tema. La necesidad de cuidados puede aparecer en cualquier momento de nuestras vidas», dicen desde la cooperativa Zabaltzen. Esta entidad se está encargando de realizar el acercamiento de las personas afectadas al ámbito comunitario. «Por lo tanto, tenemos que pensar que el cuidado no es cuestión sólo de la familia o de las instituciones. Las personas tenemos que ayudar a las personas». Pero esa activación ciudadana no viene sola. Hay que articularla. «Estamos en una

sociedad cada vez más individualista. El paradigma de familia ha cambiado. También hay diferencias en el sentido de los cuidados. Se podría decir que estamos en un periodo de reconfiguración de la comunidad». Desde Zabaltzen creen que es indispensable revitalizar el tejido comunitario tanto para el municipio, como para las personas que pueden acceder a esas redes, y dar facilidades para interactuar. «Se puede empezar preguntando a esas personas cómo se encuentran, cómo les va... Eso también es cuidar, con eso también se puede empezar a cuidar al quien está cerca, a hacer red comunitaria».

## Herrian desio ez duten bakardadean bizi diren 1.000 pertsona daude

Beraun y Galtzaraborda. El personal técnico de Zabaltzen han empezado a *patear* esos dos barrios para saber por donde se mueven esas personas mayores, y por lo tanto, las más susceptibles de padecer la soledad no deseada: dónde se juntan, en qué horario, qué rutinas tienen, dónde hacen las compras... «Queremos saber lo que hacen en el barrio. También tratamos de identificar quienes tienen contacto diario con esas personas, el barbero, la farmacéutica, el empleado del super, la dirección del club de personas jubiladas del barrio... Así podremos revitalizar esas redes, acercar más a la persona afectada a esas personas y entidades, con el objetivo de que se sienta respaldada. Sólo con estar con esas personas, sin pedirles nada, ya estamos haciendo algo. Pero esas personas necesitan esa red diaria para acabar con la soledad».

Es un tema de conciencia. Hacer una pequeña reflexión sobre aquella persona cercana que vemos todos los días sola, y nunca le se le ha prestado atención. «El cuidado empieza desde uno mismo, ya que es un aspecto que sustenta todas las vidas, y hay que trabajarlo desde todos los espacios. Cada uno desde su sitio, tiene que aportar en el cuidado de las personas de al lado».







## Argazki zaharra

Energia eskuratzeko erak asko aldatu dira azken urteetan. Erregai fosilak, adibidez, gutxitzen ari dira urteek aurrera egin ahala. Altzaten Campsaren biltegi erraldoiak izan ziren 1970etik, 1990ko hamarkadaren hasierara arte: osotara hamazazpi depositu ezarri zituzten han, 6.000.000 litro erregai jasotzeko gaitasuna zutenak. Egun erabat aldatu egin da bai zonalde hori, zein energia eskuratzeko modua.

## Ba al zenekien...

5.122 personas viven solas en Errenteria

Errenteria tiene 16.714 viviendas habitadas (Eustat, diciembre de 2023). En 5.122 de ellas sólo esta censada una persona. Las que tienen dos habitantes son 5.289 en total, pero son mayoría las que acogen a familias de entre 3 y 5 personas (6.060). 233 son las unidades convivenciales en las que el número de habitantes está entre 6 y 9 errenteriarras, y un dato curioso: en 10 viviendas conviven diez personas o más.



## Txoko bat

Iztieta auzoa herrira zabaltzen du Diputazio plazak, eta alderantziz. Bizia da, etenik gabeko bisitariak ditu. Izan ere,  haurrentzako parkea du, eserlekuak, belardi eta zuhaitzak, eta inguruan komertzio nahiz ostalaritza gune asko baititu. Auzoaren egongela da, adin guztietako errenteriarrek bat egiten dutena. Lasai egoteko, eta jendearen joan-etorriekin entrenenitzeko toki aparta.

# BATU ZAITEZ

## únete

a los canales de

## HERRI BIZIAren

# TELEGRAM

# WHATSAPP

# KANALETARA




HERRI BIZIA

ERRENTERIA UDALA